

SEGURTASUN MAILEGUA

AbsysNet web bidezko aplikazioa izanik, batzutan konexioak huts egingo du sareko arazoengatik, zerbitzariaren erorketarekin, etab. Momentu horietarako, **segurtasun maileguarekin** lan egiteko aukera dago PCan.

Beste batzutan, berriz, bertsio aldaketen ondorioz programaturako etenen ondorioz edo Irakurketa Publikoko Sarean liburutegi berriak sartu direlako, **segurtasun maileguaren** aukera erabili beharko da.

Segurtasun maileguko programaren instalazioa

Ondorengo pausoak jarraitu behar ditugu:

1. Instalatu nahi dugun PC bakoitzean **absysnet** direktorioa sortzen dugu **C:/** sisteman.
2. Programa honako helbide honetatik deskargatzen dugu:

<http://www.euskadi.eus/euskadiko-irakurketa-publiko-sarearen-dokumentazioa/web01-a2libzer/eu/>


Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sarearen on line sarearen dokumentazioa

Katalogazio eskuliburuak
Beste prozedurak
Softwarea deskargatzea
SZDA eskubideak

Softwarea: **Absysneten barra-kodeak inprimatzeko letra-tipoak**

Instalazioa:


1. Fitxategia PCan deskargatzea
2. Hasi menura joan->Konfigurazioa->Kontrol-panela->Letra-tipoak
3. Artxibora joan->Letra-tipo berria instalatzea
4. Letra-tipoak deskonprimitu ditugun karpetara joan, denak aukeratu eta "onartu" klikatu

 [Deskargatzea \(ZIP, 24 KB\)](#)


Software: **Segurtasun-maileguaren programa**

Instalazioa:

1. Fitxategia PCan deskargatzea
2. C:\ unitatean **Absysnet** izeneko direktorioa sortu
3. Direktorioan deskargatutako fitxategia deskonprimitu
4. Programa erabiltzeko **C:\absysnet\Bin\absysNET.exe** exekutatu

 [Deskargatzea \(ZIP, 20 KB\)](#)


3. Fitxategia sortu dugun **absysnet** direktorioan gordeko dugu.
4. Fitxategiak deskonprimatzen ditugu.



5. Programa erabiltzeko **C:/absysnet/Bin/absysNETp.exe** fitxategia exekutatu beharko dugu.

Segurtasun maileguaren erabilera

1. Programa exekutatu dugu.
2. Abiatu aurretik, programak sistemaren data eta ordua zuzenak diren galdetuko digu (datua garrantzitsua da, izan ere, segurtasun maileguak AbsyNet-era iraultzen ditugunean data zuzena izan behar baita, gabetzeak, gaiturako mailegu kopuru, etab-ekin arazorik gerta ez dadin). Zuzena bada **Onartu** klikatuko dugu.



3. Aukera lehenetsi gisa, programa **Mailegu** erlaitzean exekutatzen da. Itzulketetara pasatu nahi bagara  botoia klikatu beharko dugu.

absysNETp

Préstamo

Lector

Ejemplar

Fecha y hora del sistema

30-06-2015

12:11:54

Devolución

DETALLE DE LAS OPERACIONES

Fecha	Hora	Número secuencial	Lector	Ejemplar	Operación
30/06/2015	12:11:33	000001	120044777	1140100	Préstamo

4. Aleak ohiko moduan mailegatuko eta itzuliko ditugu, hau da, barra-kodeak irakurgailuaren bidez irakurriz. Mailegu bakotzarentzako erabiltzailearen zenbakia sartu beharko da.

Oharra: GARRANTZITSUA Sartzen diren kodeak zuzenak direla egiaztatu behar da, erabiltzaileekin edo mailegatzen eta itzultzen diren materialeekin bat egiten ez duten datuak ez sartzeko.

5. “**Eragiketen xehetasunak**” atalean egindako maileguak eta itzulketak azalduko dira.


Oharra: **Liburutegi arteko mailegua EZIN** da kudeatu segurtasun mailegutik.


Oharra: Kontuan izan behar da segurtasun maileguak ez duela sortzen garaiz kanpoko maileguen, erreserbatutako aleen, etab-en mezurik.

Egindako transakzioak berreskuratu


Behin sarea berriro martxan hasi egindako maileguen eta itzulketen gaineko informazioa berreskuratu dezakegu. Horretarako honakoa egin behar dugu AbsysNet-en:

1. **Administrazioa > Segurtasun mailegua** aukeratu eta ondorengo pantaila agertuko da:





2. **Exekutatu**  botoia klikatzen dugu.
3. **Sarrera Fitxategian** mailegu eta itzulketen datuak aurkitzen diren fitxategiaren izena adieraziko dugu.

GARRANTZITSUA. Aukera lehenetsi gisa, aipatu fitxategia automatikoki sortzen da direktorioan **C:\absysnet\Work .anp** luzapenarekin eta segurtasun mailegua egin deneko datarekin izendatzen da **uuuhhee(urtea/hilabetea/eguna)** eskemari jarraituz.



4. Transakzioaren emaitza fitxategi baten gorde nahi badugu, **Irteera Fitxategian** adierazi beharko dugu (fitxategia *SM_data* bezalako erraz identifikatzeko moduko izen batekin izendatzea gomendatzen da)
5. **Epe bukaeran** karga burutu nahi deneko data adieraziko dugu, hau da, segurtasun mailegua erabiltzen hasi gareneko data.



6. **Onartu**  klikatzen dugu.
7. Irteera fitxategia non gorde nahi dugun galdetzen digun elkarrizketa-koadroa aterako da.
8. Egindako transakzioen emaitza agertzen da.

Sarrera fitxategia	
Sarrera-fitxategia	<input type="text" value="20150630.anp"/>
Irteera-fitxategia	<input type="text" value="SM_20171031"/>
Epe bukaera	<input type="text" value="17/11/2017"/>

Emaitzak			
Egindako transakzioak	<input type="text" value="0"/>	Erroreak transakzioetan	<input type="text" value="0"/>
Egin ez diren transakzioak	<input type="text" value="4"/>	Transakzioak guztira	<input type="text" value="4"/>